

Zure esku ase-eziñok, ene seme, nik gozokiz betetean, orduan bai dakidala zergaitik dagoan ez-tiz gaiñezka lore-muiña, eta igaliak zergaitik as-tuntzen diran, ixil-ixilik, gurin samur ezkotsuz... Zure esku ase-eziñok, ene serne, nik gozokiz be-tetean.

Zure arpegia mosukatzen dodanean, ene rnaite, zure ezpanak irribarrez loratzeko, orduan dakit zein dan goiz-argian zerutik darion atsegiña, ta uda-aizeak nire gorputzari dakartsoen gozota-suna... Zure arpegia mosukatzen dodanean, ene maite, zure ezpanak irribarrez loratzeko.

## IO

### IZEN TXARRA

Ez egizu, ene seme, negarrik egin. Oker gaiz-toak dira nunbait, beti, errazoi barik, agirika daukazuzanak ! Zikifia deitzen dautzue, idazten zengozanean atzamarrak eta arpegia tintaz orbandu zenduzalako? Eta ez dira lotsa? Illargi barriari, arek bere arpegia tintaz baltzitu daualako, zikiña deitzen azartuko ete litzakez ?

Ene seme, edozertxogaitik errudun egiten zaitue. Bai, zure edozer txarto deritxoe. Jantzitxoa urratu dozula, jolasketan ? Eta origaitik, urratzaille deituko dautzue? Eta ez dira lotsatzen? Udazkeneko goizagaitik, zer esango ete leukie, ba, a odei urratu ostetik irri-barreka daukagunean ?

Baiña, ene seme, ez egiezu zuk jaramonik egin. Ondo bat-banatuta daukiez bai zure utsegiteak ! Mundu guztiak daki zein gozo-zale zarean ! Eta origaitik salobera deitzen dautzue ? Eta ez dira lotsa ? Zelan deituko leuskigue, orduan, guri, zu guretzat ain atsegin izanik, mosuka jango zindukeguzan ezkerro?

## II

### EPAILLEA

Esan beragaitik nai dozun beste, baiña nik zuk eta edozeiñek baiño obeto dakidaz ene umearen akatsak.

Nik ez dot maite ona dalako, seme dodalako baiño. Eta zuk zelan jakin zengike bera zelako altxor dan, zuk bere irabazi ta utsak azta bardiñez neurritu nai dozuzan orrek ? Nik zigor-azo bear dodanean, iñoiz baiño neureago dot. Negar ba'daragiot, nire biotzak be negar dagi arekin batera.

Neuk bakar-bakarrik dot eskubide osoa salatu nai nekarazteko, maite dauanak soilki zigortu dalgike-ta.

## I2

### JOSTAILLUAK

Zori ontsua zu, auts artean etzunik, ordu luzeetan zotz orregaz jolasean zabilzan mutiko ori ! Barre egin bear nik, nai ta ez, zu goiz guztian,